

Quem sacro munere decorasti...!

JOSEBA GOÑI

La dirección de OARSO me pide un artículo necrológico sobre es sacerdote renteriano D. Angel ALBISU DAMBOLENEA (1905-1993), fallecido el 21 de abril último cuando avanzaba hacia sus 88 años. El carácter de recordatorio anual de la revista bastaría sin más para justificar dicha demanda y, de mi parte, aceptar honrado tal petición. Dibujemos su perfil biográfico, buena ocasión para reflexionar sobre nuestro momento religioso y, a la par, mostrar nuestra gratitud al ministerio apostólico del sacerdote desaparecido.

Su biografía tiene como rasgo, quizás el más definido y propio, su estrecha vinculación con Rentería, más en concreto, con su historia religiosa; en primer lugar, por su nacimiento; luego por su activo y prolongado servicio en el pueblo como coadjutor de la parroquia de la Asunción, a lo largo de más de treinta y cinco años (primera etapa, 1934-38 y segunda, 1949-81); pero también -hecho muy relevante- por su doble vinculación familiar condos clérigos que jugaron papel decisivo en la vida religiosa del pueblo en los cuatro primeros decenios de este siglo.

Don Angel a través de su propia biografía y la de sus dos tíos sacerdotes, Don Gervasio Albisu (coadjutor entre 1900-1936) y Don Santiago Dambolenea (lo mismo entre 1901-1947) ha cubierto como testigo privilegiado y memoria viva del inmediato pasado cristiano, la trayectoria vital de nuestro pueblo a lo largo de noventa años, tan marcados por sus fulminantes transformaciones de todo orden y, cómo no, también del religioso.

Ahora bien, el signo a la vez más llamativo y paradójico del estilo de vida y ejemplo sacerdotal de Don Angel ha sido el de la *fiel continuidad*, el de la serena y confiada fidelidad a lo heredado y aprendido desde niño; desde la incorporación al cuerpo clerical casi por ósmosis desde su medio familiar, hasta el gratisimo recuerdo -muy magnificado con los años- conservado de su etapa de educación para sacerdote en los seminarios de Andoain y Vitoria.

Todo esto conformó en él una especie de segunda naturaleza: firmeza natural y adhesión inmovible a las opciones fundamentales de la primera hora de su vida; serenidad no perturbada por lo que habrían de ser los cambios posteriores, sobre todo eclesiales, que afectaban sin duda a problemas tan decisivos como, el propio estatuto social del sacerdote, los nuevos estilos de trabajo pastoral y, en general, los supuestos

OARSO errebista -urtean behingo Errenteriako aldizkaria denez-, beharturik dago oraingoan ere, tamalez, aurten hildako zenbait izen argi eta maitatuen eta beroien bizitzako urratsen kontu ematera, geroak ahaztu ez ditzan. Hoién artean, ALBISU eta DAMBOLENEA'tar Don ANGEL, herriko semea, jaioterria biziro maite zuena eta, oroz gain, apaiza, hain zuzen, gure Parroki Nagusiko apaiz laguntzailea urte-zama luzean.



Familiako erro sakon sakonenetik zetorkion Don ANGEL-i Errenteriakiko lehia, nahiz odol aldetik aita bakarra jaiotzez herritarra izan, ama Lezoarra zelarik. Indar hori hedatzen joango zen, familiako zuhaitzaren ardatzak herriaren arazoetan murgil eta nahastuen zihozan neurrian, gurasoen belaunaldetik zela, edo senideen garaian izan. Nola nahi ere, ur gehiago ba zen, herri-miña eta sen asegai hori garatuko zukeen iturria, batez ere -eta hona bere herriarenganako bigarren lotura- Ama Eliza, hitz hauekin adieraziz, bai XVI-garrenean eraikitako harri hormazko etxe handi eta kankarra, bai fededunek osaturiko kristau familia.

Izan ere, familiako giroan bertan Don Angel-en bizitzako gogo, begiratu eta pausoak hartu zutela Elizaruntzko bidea, ez da gehiegikeria bat esatea. Hona zergatik ez!. Bi osaba -bata aita aldetik, bestea ama aldetik- parrokiako apaiz zituelarik; bere gurasoen lehen ezaguera eta ezkon-prestakuntzako harremanak ere, seguruenik, bi aipaturiko apaizen hildoan edo itzalean, edota beroiek gutxienez aitzaki zirela, jaiok izanik...; zer bidezkoago, horrelako etxe hain berezi batetik, seme bat bederen, Eliz serbitzurako, apaizgoaren mailean, irtetzea?

Egia da, bai, gazte urteetako norberaren nahi lerdana, ez dela nahikoa apaiz izateko, landaretxo xume hori Seminarioko urteetan zehar egitasmo sendo bihurtzen ez bada. Elizak, beretzat nahi dituen serbitzariak, apaizgo mailekoak, bederen, artaldearen artzai eta kristau herri osoaren aintzindari izateko direnez, maila gorenekoak nahi ditu, birtutean eta jadintzan, basamortu luze baten legez, urteetan, mundutik at, otoitz ariketan eta ikasketa berxietan hezitzen doaztelarik.

Aski ondo tajutu zuen Don Angel-ek bere izakera eta apaiz personalitate osoa, kompromezu hortarako Seminarioan igarotako urteeri begiratzan badiegu. Zahartzaroen ere, gaztetandiko oroitzen hoiak beregan zuekaten arrakasta sakonetik, neur daiteke saiakera haien garrantzia eta eragiña.

mismos de la presencia y acción de la Iglesia en el mundo y en el propio pueblo creyente.

El difícil tránsito hacia la nueva situación eclesial desveló en él, tras su mentada fidelidad, otro rasgo conformador de su personalidad, *la humildad*. Si ya en los años de mayores posibilidades en cuanto vitalidad y vigor intelectual la proyección sacerdotal de D. Angel hacia lo público y social en relación con la feligresía cristiana o con el pueblo en general, se circunscribió dentro del equipo de sacerdotes de la parroquia, a labores más bien humildes, incluso de retaguardia -su papel "activista" se ciñó escuetamente y ello durante muchísimos años, a ser el responsable directo del Cine parroquial (hoy actual plaza Xenpelar)-, en los años de madurez su estilo y talante religioso, se centró sobre lo nuclear de la vida de todo sacerdote: el servicio al Altar en el esplendor de su culto; el ejercicio de ferviente orante en y para la comunidad cristiana, seguro de ocupar así un lugar central en la vida de la Iglesia.

A su vida -en mayor medida que a la de los simples fieles- convendría aplicársele aquella predicción que Cristo hiciera sobre el destino del primero de los apóstoles, S. Pedro, "*de joven ibas donde querías..., de viejo otro te llevará donde no quieras*" (Joan.XXI,18); la incerteza como lote previsible del servidor del Evangelio; pero junto a ello, la mano protectora de Dios en toda circunstancia sobre la vida de sus servidores.

Incerteza y señorío. Valores aparentemente contradictorios, que obligados a sumirlos a lo largo de más de sesenta años en activo (en tiempos de la celeridad declinante de lo religioso!), componen un "cocktail" lo bastante explosivo para que, mal gestionado, explique el origen de deserciones sacerdotales como nuestro tiempo ha sido testigo.

Nuestro hermano D. Angel supo salir muy airoso de tal prueba y el constatarlo nos produce una inmensa alegría y satisfacción; constatación que por sí sola justificaría estas líneas. Las turbaciones y dudas nunca lograron quebrar ni turbar el fortín de sus certezas. Por batalla tan ruda, seguro que hubo de pagar algo precio: desalientos, alarmas y hasta algunos escándalos, sobre todo, cuando se presentaron bajo la forma de giros y novedades de la propia Iglesia en la fase posterior al Concilio; situaciones nuevas y que de algún modo parecían desautorizar tradiciones por cuya custodia y obediente servicio se había puesto el máximo pundonor muchos años como pastor de la grey.

Este método de vida sacerdotal labrado de fidelidad y de humildad, puede parecer a muchos decepcionante y hasta inútil. Toda una literatura contestataria posconciliar ha clamado y sigue clamando todavía contra él. Con todo, difícilmente podría concluirse que dicha actitud no asuma una gloriosa herencia eclesial que ponderando la dificultad innata de la empresa evangelizadora, concede a la espera y la paciencia su dimensión necesaria en la maduración de las cosas.

La dura purificación espiritual obrada en su vida por la larga senilidad de los últimos años, sobre todo en su fase terminal, en la Residencia "San Francisco Javier" de Tafalla, lo habrán preparado, qué duda cabe, para el encuentro filial y confiado con Dios.

Sus restos mortales, "semilla de resurrección" depositados en tierras fecundadas por el Ebro en el cementerio de Tudela -denominación cristiana de "cementerio" que, no olvidemos, significa "dormitorio"-, en sepultura de su rama familiar Añon-Albisu, rodeado del cariño de Carmen, única hermana superviviente y del de sobrinos de primera y segunda generación, pueden esperar gozosos y confiados el despertar definitivo "en cuerpo y alma", cuando la hora victoriosa de Cristo se haga patente sobre la historia y el mundo.

Bere bizitzako ekintza eta urratsak nolakoak izan ziran, kronika mailekoak noski, kondairari bere lekua eman dakiogun?. Gazteizen apaiztu zuen 1931'ko urtean Elizbarrutiko Gotzaia zen Don Mateo Mujikak. Olio Santuz gantzututako eskuak eta bedeinkatutako ezpain eta ahoa, prestaturik zeuden beraz Jaunaren bidean apostoluen ministeritzan lanari ekiteko. Lehenengo urteak, Arabako Gasteiz hiriburutik oso gertu dagoen, *Castillo* deritzan herrirka batean igaro zituen; laister asko bere pausoak Errenteri bidera itzuli ziran. Izan ere, 1934-ko urtean, gure Parroki Nagusiko apaiz-laguntzaile bezela aurkitzen dugu, hortaz gain Zamalbideko hauzo eta urrutieneko baserritarren apaiz arduradun bezela.

Uste gabeen, 1936'an, gerra madarikatu hura iritxi zen; Don Angel-en bizitzan eta, zer esanik ez, bere familian hainbat negar, buruauste eta zotin sorturiko gertakizuna. Bi osaba apaizetako bat, Don Gervasio, erahildua izan zela eta besteak, Don Santiago-k, herbeste zigorretik ihes egiteko, bada ez bada ere erretirua aurreratzeko erabakia artu zuela gogoratzea, ez da nahiko.

Don Angel berari ere, beste hainbat apaiz gazteengan eroritako politikako susmo txarragatik, etorri zitzaion zigorra. Jaioterrik kanporatu egin zuten, Gipuzkoako Goierriko herrirka apaletan ixil batera, Matxinbenta-ra, Mandubi mendate bizkarrean, Beasain eta Azpeitiako bide ertzeko lekura bidaliz. Zigorra legez, paraje ezkutu hartara bidalia, bai; bainan, Jaunaren bideak ezezagunak direlako edo, zigorra, horra non zoriona gertatu...

Don Angeleri orduan, bai, eskuratu zitzaioela, bere bizitzako aukera; bizitzako atalik bete eta oparoena, seguruenik, bai artalde lehial, fededun eta zintzo baten artzai izateko aukera haundia izan zuelako, baita ere, apaiz lagunarte giro bero-bero bateko partaite izatea, gertatu zitzaiolako. Eta gainera, dena esatekotan, gose urte gogor haietan, kale-gorriko bizi modua baino samurragoa, nola ez gerta, baserritar bihotz eta zabalekoen artean izanik?

1949'an berriro Errenteriara itzuli zen, arrazoi moduz, berak esaten zuen bezala, aita xaharraren eskakizun bateri gustoa eman nahirik, alegia, heriotzetik gertu zegoela nabariz, bere jaioterrian hexurra utzi nahi zituela, behin eta berriz adierazten ziolako. Helburu hau lortzea aita-amen kasuan, oso oroitzen atsegingarri eta benetan gogoangarria gertatuko zitzaion aurrerantzean.

Beraz, bizitzako atal bat isten zen, bestea irekitzeko ordea, Errenterian apaiz lanetan berriro ekitzaz... Hemendik aurrerako apaiz lanak ezin gerta, noski, era bat ezezagunak, gerra aurreko esperientzia gogoan izanik; nola nahi ere, herriko giro eta arazoan aldakuntzak (berrogeitamareko amarkadan jasandakoak batipat) hain bizkor eta harrigarriak izanik, bazuten kora-pillorik apaiz lanetarako.

Erdal lerroetan saiatu naiz aztertzen, nere iritzi, Don Angel-en bizitzako kakoa apaiz bezela zertan datzan: apaiz fededun haundiko eta gizon apala izatean; bere iritzi eta batez ere bere jokabideetan, Elizaren neurri eta asmoetara burua makurtzen zekiena, ez ordea gogo txarrez eta derrigorrez, baikik eta, ahalegin osoa eta adore haundia bertan jarriaz, kristau bitzta zintzoeneko gailur-gailurrera iristeko asmoz.

"*Quem sacro munere decorasti...*", latinezko hitz hauek, apaizen hileta elizkizuneko otoitz batetik aukeratuak, lantxo honen titulu bezala ipiñi ditugu, Don Angel zenaren bizi modu osoari, goralpen osoz ezarri nahirik; badute gainera esan nahi mardula eskeintzekorik delako; funtsean azpimarratu nahi dutena zera da, apaizgoaren ezaugarriak nabarmenena "dohai sagaratu bategaz ornitua" izandakoan, dagoela. Dohai haundiak, erantzukizun handia berekin daramalako, otoitz bat eskatzen dizuet zama latz horren erantzukizuna eman behar izan duen Don Angelen alde. Aitaren bakean eta morroi onari zor zaion sarian, beza betiko atseden. Agur, Don Angel, Egun Haundirarte.